

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hondakinen prebentzioari eta kudeaketari buruzko proiektu berritzaileentzako Sarien deialdia egin da, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxeentzat

Lanak urriaren 19ra bitarte aurkez daitezke

Astelehena, 2018.eko urriak 8

Hondakinen Prebentziorako eta Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko Bulegoak (Nafarroako Gobernuak, Iruñeko Eskualdeko Mankomunitateak eta Nafarroako Hondakinen Kontsortzioak osatuak) [Hondakinei buruzko proiektu berritzaileen Sarien](#) deialdia egin du, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxeentzat. Lanak urriaren 19ra bitarte aurkez daitezke.

Sarien helburua da ikastetxeen jarduera berritzaileak bultzatzea hondakinen prebentzioaren eta kudeaketaren arloan.

Ikastetxe bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu ahal izango du. Besteak beste, honako hauek hartuko dira kontuan: berrikuntza, sinergiak sortzeko eta eskolaz haratago eragin-eremua zabaltzeko gaitasuna, eta hondakinen kudeaketan oihartzun positiboak sortzea ikastetxean bertan nahiz herrian. Proiektua garatzerakoan, laguntza eta hondakinen eta komunikazioaren gaineko prestakuntza espezializatua izango ditu ikastetxeak.

Etapak bakoitzeko (Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta LH) bi sari emango dira: batetik, hainbat proposamenaren (mendi-ibiliak, rafting, abentura-parkeak) artean taldeak hautatzen duen jarduera, eta, bestetik, Mankomunitateak emandako saria, proiektuaren helburuak garatzen laguntzeko.

Nafarroak hondakinak %12 murrizteko eta etxeko hondakinen %75a berrerabiltzeko eta birziklatzeko erronka du 2037. urteari begira. Horretarako, ezinbestekoa da gizarteak hondakinen kudeaketa ulertzeko duen modua aldatzea; hau da, baliabide bezala hartzea eta ez arazo bezala, ekonomia zirkularrerako bidea egiten hasiaz. Beraz, lan horretan gaur egungo ikasleek garrantzi erabakigarria izango dute.